# Urteko 6. Igandea A

# 118. Salmoa

*L.a. 18 / S.a. 17*




**Dohatsu Jaunak eman legean dabiltzanak.**

Dohatsu bide garbi garbian ari dena,
Jainko legean dabilana.
Dohatsu Jaunak manatueri jartzen dena,
Bihotzez bila doakona.

Zuk dauzkigutzu manamenduak guri eman,
Osoki gaiten ibil hoitan.
Nere bideak agian zuzen doatzila,
Legeari jar nondik nola.

On izan zaite zure hunentzat, bizi nadin,
Zuk manatua dudan egin.
Zabal-zkidatzu neri begiak, dudan goza
Zure legeen argi gaitza.

Zure nahien bidea erran nondik non den,
Hartan artoski bainaiz joanen
Argi nezazu zure legean sartu arte,
Bihotz guziaz dudan bete.

Editions EzkilaTous droits réservés